

BOTA BERTSOA



FAMILIA DESBERDINAK
 ESTITXU AROZENA
 DOINUA: GOIZEAN GOIZ JEIKIRIK

FAMILI DESBERDINAK
 URRUN JOAN GABE
 GURE IKASTETXEAN
 MOTA AUNITZ DAUDE.

LURREK BI AMA DAUZKA,
 LAU AITONA-AMONA,
 POZ ETA MAITASUNEZ
 SORTZEN DA PERTSONA.

LIAM HIRU URTEKIN
 ADOPTATU ZUTEN,
 BERE JAIOTERRIRA
 JOANGO DA AURTEN.

LEA ALABA BAKARRA
 ARI DA HAUNDITZEN,
 BERE ETXEAN EZ DA
 BAKARRIK SENTITZEN.

LEHEN SEI ZIREN ETXEAN
 ETA ORAIN BIKIAK,
 DENAK BABESTEN DITU
 ETXETXO TTIKIAK.

IBRAHIMEREN AMAK
 EZ DU BIKOTERIK,
 BIAK BATERA DAUDE
 INDARREZ BETERIK.



BOTA BERTSOA



JAIMEN AITATXO EZ DA
BIZI BERAIEKIN,
BIDEDEIEN BIDEZ
NOIZNAHI ELKARREKIN.

MINBIZIAK ERAMAN
ZUEN JONEN AMA,
BERETAZ OROITZEN DA
JANZTEAN PIJAMA.



LIZARREN GURASOAK
BANANDUTA DAUDE,
HORREGATIK DA BERA
BI ETXEREN JABE.

HARRERA-ETXE BATEN
DAGO CECILIA,
HANGO LAGUNAK DIRA
BERE FAMILIA.



AITATXO ETA AMATXO,
ANAIA, ARREBA,
BAINA PERFEKZIORIK
POSIBLE OTE DA?

BIZITZA NORA DOAN
EZIN DUGU JAKIN,
POZIK BIZI GAITEZEN
DAUKAGUNAREKIN.